

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Bankiak lankidetzarako esparru-hitzarmen bat sinatu dute LH duala garatzeko

Ilido estrategikoak zehazten eta proiektuan abian jartzen elkarlanean ariko dira

Ostirala, 2016.eko irailak 23

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek eta Bankiako lehendakari José Ignacio Goirigolzarrik lankidetzarako esparru-hitzarmen bat izenpetu dute ostiral honetan Nafarroako Jauregian Lanbide Heziketa garatzeko, eta bereziki LH duala, Foru Komunitatean.

Horrenbestez, Foru Administrazioak eta banketxeak ilido estrategikoak zehazteko garaian elkarlanean arituko dira

(gora egiten ari diren sektoreak identifikatzea edo lanbide-kualifikazioak aurreikustea...), eta proiektuan abian jartzeko. Haien artean nabarmentzen dira, LHko goi mailako zikloak ezartzea, LHk enpresetan eta enpresataldeetan dituzten aukerak eta haien erabilera zabaltzea, prestakuntza-zentroen sareko lanak edo enpresetako berrikuntza babestea.

Akordioak ez du betebeharr ekonomikorik sortzen, proiektu zehatzetarako finantzaketa ondoren izango diren berariazko akordioen xede izango baita. Esparru-hitzarmenaren ekitaldian izan dira, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi eta Hezkuntzako kontseilari Jose Luis Mendoza, besteak beste.

Gaur izenpetutako hitzarmenarekin, Nafarroako Gobernuak LH duala zabaltzen lagundu nahi du, ondorengo kontuan hartuz: ELGEren (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) arabera, hemendik eta 2020. urtera bitarte sortutako enpleguaren bi heren LHri lotutako lanbide-kategoria teknikoekin zerikusia izango dute.

Gainera, Nafarroak bere garapen ekonomikoaren eredia eguneratzeko erronkari aurre egin behar dio, [Especializazio Adimentsuaren Estrategian](#) jasotakoa (RIS3 Nafarroa); bertan, politika eta baliabide publikoak oinarritu behar diren eskualdeko lehiakortasunerako funtsezko sei sektoreak zehazten dira, 2030. urtearen horizontearekin. Gazteen langabeziari aurre egitea da beste helburu bat (% 43), % 13,27ko batez bestekoaren aurrean (EPA IIT16). Eta Nafarroan, langabezia



Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos eta Bankiako lehendakari José Ignacio Goirigolzarri.

guztiaren % 18,7 da.

"LH dualak hezkuntza akademikoaren eta lan-merkatuaren arteko doikuntza eza hausten du, ereduak prestakuntza enpresen beharretara egokitzen baitu, haien eskaeraren arabera", azaldu du Lehendakariak; "kalitate handiko LH" bat "gure ekonomiak hainbeste behar duen patroi lehiakorraren aldaketa"-ren elementu katalizatzaile bat dela azpimarratu du. "Hezkuntzan egindako inbertsioa garapen ekonomikoa sustatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko bide eraginkorretako bat da. Eta LH duala berrikuntzarako eredu oso egokia da", azpimarratu du Lehendakariak.

"Bestalde, Bankiak dituen helburuen artean, hezkuntza babestea eta Lanbide Heziketa Duala pixkanaka ezartzen laguntzea da. Xede horretarako, orain arte hamar autonomia erkidegorekin akordioak erdietsi ditu: Asturias, Balear Uharteak, Kantabria, Gaztela Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Extremadura, Galizia eta Errioxa.

Bankiako lehendakariak beharrezko finantzaketa agindu du lehen hitzarmen honen esparruan "adosten diren programak egiteko". "Beharrezko baliabideak jartzea oso garrantzitsua da gazteak lan-merkatuan berriz sartzeko, eta belaunaldi berriak prestatzeko lan-merkatuko eskaera berriei hobeto aurre egin diezaieten", nabarmendu du José Ignacio Goirigolzarrik.

Bankia LH Dualaren aldeko itunaren barnean dago ere, Administrazio eta Finantzetan espezializatutako LH Dualeko goi mailako zikloa sustatu du Espainiako LH Dualeko lau zentrotan (2 Madrilen eta beste 2 Valentzian), eta kanpoko merkataritza espezializatutako prestakuntza-programa bat Valentzian ere, beste autonomia erkidego batzuetara zabalduko dena.

Konpromisoak

Zehazki, Bankiak konpromisoa hartzen du Nafarroako Gobernuari beste autonomia erkidego eta herrialde batzuetako esperientziei, jardueri eta ekintzei, araudiei eta jardunbide egokiei buruzko informazioa emateko, bai eta LH dualean hobekuntzak ezartzeko interesgarriak diren enpresei buruzko informazioa emateko ere.

Nafarroako LH Duala garatzeko bidean jarraitu beharreko ildo estrategikoak zehazten lagunduko duten txostenak prestatzen eta finantzatzen lagunduko du ere; zentro eta enpresen arteko harremanak estutzen lagunduko du eta babesa emango die proiektu berritzaileak, negozio-eredu berriak edo nazioartekotze-prozesuak ezartzeko.

Gainera, beste ekintza batzuen artean, dibulgazioko jardunaldiak antolatuko ditu; zentro eta enpresen sareen sorrera sustatuko du, eta LHtik datozen *startups* eta ekintzaileei finantzaketako deialdiak eta eskaintzak babestuko dizkiete. Akordio hori LHko proiektuak garatzen dituzten zentro guztiek baliatu ahaliko dute, eta baita proiektu horiek babesten dituzten teknologiko eta laneko zentroek ere.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Bankiari honako hauei buruzko informazioa emateko konpromisoa hartzen du: LHko zentroyen alderdi zehatza batzuk, zikloak, araudia, curriculumaren egokitzapenak..., jarduerak garatzeko espazioak, aitorpenak ezartzea (aipamenak, diplomak...), argitalpenetarako materiala eta zabalkunderako materialak, LHko eta LH Dualaren hurrengo Plan Estrategikoan parte hartzea; edo prestakuntza ekoizpen eta zerbitzuetako sektoretako egungo eskaerei eta etorkizuneko egokitzeko proiektuetan laguntzea.

Hitzarmenetik sortutako jardueretarako batzorde misto bat eratuko da. Hitzarmena 2017ko abenduaren 31 arte indarrean izango da, eta urtero luzatu ahaliko da gehienez bi urtez.

LH Duala

[Lanbide Heziketa Duala](#) lanbide-heziketaren modalitate bat da, eta bertan ikasleek ikastetxeko beren



Hitzarmena 2017ko abenduaren 31ra arte indarrean izango da, eta urtero luzatu ahaliko da bi urtez gehienez ere.

prestakuntza-jarduera enpresa bateko kualifikazio praktikoarekin nahasten ditu (curriculumaren % 33). Formula horren xedea gazteen prestakuntza hobetzea da, lan-merkatuan errazago sar daitezen, eta enpresak prestakuntza-prozesuetan gehiago inplikatzeko (eskaerak eta profilak); hala, bere lehiakortasuna areagotzeko aukera izango dute.

Lanbide Heziketa Duala Espainian 2015eko estatuko araudietatik abiatuz garatzen ari da, eta ezarpena autonomia erkidego bakoitzaren araberakoa da. Nafarroan, erdi mailako eta goi mailako 18 ziklo eskaintzen dira ikasturte honetan, matrikulatutako 500 ikaslerekin (220 praktketan) eta 176 enpresa laguntzailerekin. Lanbide Heziketa Bereziko bost programa daude, gainera. Eta iragan ikasturtean, LHko 200 ikasle eta irakasle nafarrek European egin zituzten praktikak edo prestakuntza (kopuru guztiaren % 2,67), eta arlo horretan, autonomia erkidego guztien artean buru da.